



Jaunartzia (!948-4-11)

2

Gerra osteko urtietan kendu zan Jaunartze bi eitxe-ko ohitxuria. Ordurarte lehenengua zazpi urtekin eitzen zan (kaleko jantzitxa), ta 11 urtekin bigarrena (Komuniño jantxitxa).

Neskatuak zuriz ta mutil koskorrak almirante, marino edo kaleko trajiakin janzten zian. Nesken buru gaineko bordautako mantilla zurixa tulezko beluengaitxik aldatzen jua zian ta urtietara mutikuen besora katitxu-tako estoliak be desagertzera ein eban.

Danak bardiñ jua daixezan, 1963. urtian **cresate**-nezko tunika urdin ta posak ein zian. Bilbon erosi zan telia piezatan ta hango moja batzuk emondako muestrekin, herrixan josten ekixezen danak tuniak eitxiari ekin zotsien.

Baiña **cresatena** sarri garbitxu ezker asko mazkaltzen dan telia danez, barrixak ein zian. Halan ba 1968. urtian jaunartu eben umiak gaur egunerarte ailegau dian **algodoi** zurizko tuniak estreñau zitxuezen.

Jaunartzia beti izan da senidetartekuak batzeko ta etxia itxuratzeko atxakixia. Bazkarixa etxian eitzen zan ta pintxau eitzen zian ate, horma ta abarrok. Sasoi bateko aza, garbantzua eta etxian hazitxako oillaskuari beste lujo batzuk gehitu jakoz.

Elizkizunak amaitxutakuan, beheko barreneko atetik arkupe zaharretara urtetzen zan. Txistularixak la-

gunduta, biñan biñan alkarri oratuta pasakallesian juaten zian neska-mutillak. Gero txokolatua gailletekin armosau ondoren, liburutxo bat partitzen jakuen.

Handik aste batzutara Mallabira juaten zan egunpasan. Maietzeko loretan, domekero, gabeko errosari-xura komuniño jantzitxa juaten zian umiak. Errosarixua errezau ta Amabirjiñari "Con flores a Maria" kantatzen zotsien.

Gorpuzti egunian, urte horretan jaunartutako neskatuak euren soiñekuokin prozesiñuan urtetze eben ta kustodia barruan zoian Santisimuari larrosak botatzen zotsien.

Elizaren arkupe zaharretan etaratako erretratuan ezkerretik hasitxa, Ana Mari Altuna, Ana Mari Diez, Ana Mari Martin, Angelita Moradillo, Mari Carmen Milikua, Mari Carmen Berrizbeitia, M^a Angeles Garaikoetxea, Marisabel Garitagoitia, Marivi Bilbao, Milagros Alberdi, Ana Mari Barajuen, Arantza Izagirre, Felisin Araiztegi, Milagros Abarrategi, M^a Angeles Totorika, Marina Bilbao, Marivi Izagirre, Isabel Orzaiz, Begoña Gorrotxategi eta Miren Idigoras.

Atzeko ilaran maistrak: Pilar, Carmen, Lucia ta M^a Angeles. Eskumaldian Don Teodoro.